



INFORMAZIO-ORRIA, L-ASPARRAGINASA HARTZEN DUTEN pazienteentzat

L-Asparraginasa farmako kimioterapiko bat da. Konplikazio hauek eragin ditzake:

1. Gibela handitzea: hepatitis
2. Pankrea handitzea: pankreatitisa
3. Hemorragiak
4. Kolesterol, triglizeridoak eta amonioa asaldatzea
5. Tronbosia (koaguluak zainen barruan) besoetan, hanketan eta gordailuan edo PICCan, halakorik baduzu
6. Defentsak jaitea

Hori dela eta, etxean hau egiteko gomendatzen dizugu:

1. Zaindu heste-erritmoa eta ziurtatu egunean behin edo bitan libratzen duzula; osterantzean, hartu medikuak agindutako libragarria. Orobat, begiratu gorozkien koloreari; beltzak edo gorriak badira, digestio-hemorragia dago.
2. Adi sintoma hauekin:
 - Sabelaldeko mina, goragalea edo gorakoa
 - Larruazalak eta begiek kolore horia izatea
 - Lo hartzeko joera, buruko mina, ikusmen bikoitza
 - Hankak edo besoak handitzea, beroa nabaritzea, gorritzea, mina
 - Odola sudurrean, oietan, gorozkietan
 - Sukarra edo infekzio-sintomak

**SINTOMA HORIETAKO BAT EDO GEHIAGO BADUZU,
JOAN LARRIALDIETAKO ZERBITZURA.**

3. Heparina injektatzen jarraitu beharko duzu, medikuak adierazten dizun egunera arte.
4. Jarraitu gantz gutxiko dieta egiten; orientatzeko dieta bat emango dizute.